

“AUTONOMOENTZAKO GIDA FISKALA”

Behargintza Leioak antolatutako jardunaldia

Gabinete Izquierdo Salazar-ek eginiko eta emandako agiria

2016ko azaroa

Azalpen oharra:

Azalpen honen helburua da enpresari indibidualak hurbiltzea zerga obligazioen eta Administrazioarekiko harremanen mundu konplexura.

Hori dela-eta, ez da araudia sakon eta xehetasunez aztertzen, ordea, enpresa munduan gehien ematen diren kasuak azaltzen dira.

Personalidad	Forma	Concepto	Nº de Socios	Aportaciones	Capital Inicial	Responsabilidad	Fiscalidad Directa	Régimen de la Seguridad Social
Personas Físicas	Empresario individual	Persona física que ejerce una actividad empresarial	1		No existe mínimo legal	Ilimitada: responde con su patrimonio presente y futuro	- IVA - IRPF (Rendimientos de Actividades Económicas)	Autónomos o Régimen Especial
	Profesional	Persona física que ejerce una actividad profesional	1		No existe mínimo legal	Ilimitada: responde con su patrimonio presente y futuro	- IVA - IRPF (Rendimientos de Actividades Económicas)	Autónomos o Régimen Especial
	Comunidad de Bienes	Conjunto de personas que ostentan la propiedad y titularidad de una cosa o derecho en pro indiviso	Mínimo 2	Dinero, bienes y derechos valorables	No existe mínimo legal	Ilimitada: sus integrantes responden con su patrimonio personal, presente y futuro	- IVA - IRPF (Rendimientos de Actividades Económicas)	Autónomos o Régimen Especial
	Financiamiento	Contrato por el que dos o más personas se obligan a poner en común dinero, bienes o industria con ánimo de partir entre sí los ganancias	Mínimo 2	Dinero, bienes y derechos valorables y trabajo	No existe mínimo legal	Ilimitada: sus integrantes responden con su patrimonio personal, presente y futuro	- IVA - IRPF (Rendimientos de Actividades Económicas)	Autónomos o Régimen Especial
Personas Jurídicas	Sociedad Limitada	Sociedad mercantil con un capital integrado por aportaciones de fincas, inscripciones, divididos en participaciones	Mínimo 2 Cabe la unipersonalidad	Dinero, bienes y derechos valorables	Mínimo 3.000 euros	Limitada de los Socios a la aportación realizada	IVA - Impuesto de Sociedades	Régimen Especial de Autónomos, Régimen General o Régimen Especial, excluido Desempleo y FOGASA, según cada caso
	Sociedad Anónima	Sociedad mercantil con capital integrado por aportaciones de los socios/as, dividido en acciones	Mínimo 2 Cabe la unipersonalidad	- Dinero, bienes y derechos valorables	Mínimo 60.000 euros	Limitada de los Socios a la aportación realizada	- IVA - Impuesto de Sociedades	Régimen Especial de Autónomos, Régimen General o Régimen Especial, excluido Desempleo y FOGASA, según cada caso
	Sociedad Anónima Laboral	Sociedad en la que la mayoría del capital social pertenece a los trabajadores que prestan en ella servicios retribuidos en forma personal y directa, con una relación laboral por tiempo indefinido	Mínimo 3	- Dinero, bienes y derechos valorables	Mínimo 60.000 euros - Límite por socio de 1/3 del Capital	Limitada de los Socios a la aportación realizada	- IVA - Impuesto de Sociedades - Bonificaciones	Régimen Especial de Autónomos, Régimen General o Régimen Especial, excluido Desempleo y FOGASA, según cada caso
	Sociedad Limitada Laboral	Sociedad en la que la mayoría del capital social pertenece a los trabajadores que prestan en ella servicios retribuidos en forma personal y directa, con una relación laboral por tiempo indefinido	Mínimo 3	Dinero, bienes y derechos valorables	Mínimo 3.000 euros - Límite por socio de 1/3 del Capital	Limitada de los Socios a la aportación realizada	- IVA - Impuesto de Sociedades - Bonificaciones	Régimen Especial de Autónomos, Régimen General o Régimen Especial, excluido Desempleo y FOGASA, según cada caso
	Sociedad Cooperativa	Asociación de personas físicas cuyo objeto es proporcionar puestos de trabajo a sus socios/as para producir en común bienes y servicios y venderlos a terceros	Mínimo 3 Pequeña Cooperativa de 2 a 10	Dinero, bienes y derechos valorables	Mínimo 3.000 euros	Limitada a la aportación	- IVA - Impuesto de Sociedades - Bonificaciones	Todos los trabajadores y según estatutos: - Régimen General, excluido cargo directivo, o - Régimen Especial de Trabajadores Autónomos

Kontzeptua: enpresari indibiduala

- Etekina lortzeko helburuz, ekonomia eta enpresa jardueraren bat burutzen duen pertsona.
- Jarduera ekonomikoen etekin osoak dira, lan pertsonaletik eta kapitaletik, edo faktore bietako batetik, datozenen artean, zergapekoari ekoizpen bitartekoak eta giza baliabideak (edo bietako bat) antolatzea eskatzen diotenak, ondasun edo zerbitzuaj ekoitzi edo banatzeko helburuz”.
- Sozietate Zibila eta Ondasun Erkidegoa: berezitasunak.

Ezaugarri nagusiak

- Enpresen izaera juridikoa titularraren berbera da.
- Ez dago bereizketarik bere merkataritza ondarearen eta bere ondare zibilaren artean.
- Ardura mugagabea da, gaurko eta etorkizuneko ondarearekin (kontuz irabazpidezko ondasunekin!) erantzuten du, pertsonalki, enpresak hartutako obligazioen aurrean.
- Enpresa guztiz kontrolatzen du.
- Ez dago murrizketarik enpresarako kapital ekarpenak egiteko.
- Ez dauka arauketa berezirik.
- Merkataritzako Kodeak merkataritzako gaietarako ezartzen dituen xedapen orokorretara, eta eskubide eta obligazioetarako, Kode Zibilera lotuta dago enpresa jarduera.
- Ez da nahitaezkoa **Merkataritzako Erregistroan** izena ematea, baina eginez gero, enpresariak aukera izan dezake erregistroko publikitateaz baliatzeko. Komenigarria izan daiteke ezkontutako langile autonomoentzat, eta ezkontzaren erregimen ekonomikoaren datuak eta ezkontza-itunak erregistratzea, baita ezkontidearen onarpen, baliogabetze edo aurkaratzea enpresa jarduerak ondasun komunetan izan dezakeen eraginari dagokionez.
- **Zergei** dagokienez, enpresaren onurak enpresariari dagozkio, eta berak aitortu behar ditu **PFEZ**an (Pertsona Fisikoen Gaineko Zerga).

Nahitaezko izapide garrantzitsuak

- Baimenak ematea (Udala)
 - [Udalaren obra baimena](#)
 - [Udalaren irekitze baimena](#)
- Izapide fiskalak (Ogasuna)
 - [Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga](#)
 - [Errolda aitortpena](#)
- Lan arloari dagozkion izapideak (Gizarte Segurantzza)
 - [Langile Autonomoen Erregimen Berezian afiliatu eta alta egitea](#)
 - [Enpresa Gizarte Segurantzaren inskribatzea](#)
 - [Langilea Gizarte Segurantzaren Erregimen Orokorrean afiliatu eta alta egitea](#)
 - [Lantokia irekiko dela jakinaraztea](#)
 - [Kontratazioak INEMen jakinaraztea](#)

Erregistro Liburua

Lan Liburuak: ~~Bisita~~ Liburua

Kontabilitate Liburuak

a) Pertsona Fisikoen Errentaren Gaineko Zerga

- Eragiketa Ekonomikoen Erregistro Liburua (EEEL)

Nahitaezkoa da, etekin garbia ebazteko modua edozein dela ere.

EEELn, eragiketa ekonomiko guztiak erregistratuko dira, honako kapitulu hauetan sailkatuta:

- Diru-sarreraren eta egindako fakturen kapitulua.
- Gastuen eta jasotako fakturen kapitulua.
- Ondasun atxikien edo inbertsioko ondasunen kapitulua.
- Erkidego barruko zenbait eragiketari buruzko kapitulua.
- Hornidura eta ordejarrien kapitulua.

KZA (Kalkulu Zuzen Arrunta) Erregimenari lotutako enpresariak, gainera, Merkataritzako Kodearen liburu ofizialak eraman behar dituzte eta Merkataritza Erregistroan legezatu.

Hauek dira liburuok:

- Urteko Inbentario eta Kontuen Liburua.
- Liburu Egunkaria.

b) Balio Erantsiaren gaineko Zerga:

- Egindako fakturen erregistro liburua
- Jasotako fakturen erregistro liburua.
- Inbertsio ondasunen erregistro liburua.
- Erkidego barruko zenbait eragiketari buruzko erregistro liburua.

Hiruhileko aitorten nagusiak

- 130eredua-Zatikako Ordainketa: hiru hilerik behin, diru-sarrera bat egiten da errenta aitortena dela-eta.
- 110 eredua: PFEZen atxikipenak
- 303/310 eredua-BEZ, salbuetsitako jarduerak eta Baliokidetasun-errekarguko erregimen berezia kenduta.
- Kapital atxikipenei buruzko 115/123 eredua
- 347 eredua: iragankorra

Zergak. Sarrera

- PFEZ–Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga.
- BEZ – Balio Erantsiaren gaineko Zerga

PFEZ

13/2013 FORU ARAUA, abenduaren 5ekoa, Pertsona Fisikoen errentaren gaineko zergari buruzkoa

- PFEZen Zerga Oinarriak (ZO) bi zati dauzka:
 - ZO orokorra: zerga tasa gehikorra %49 arte.
 - Aurrezki ZO: %20 eta %25 arteko zerga tasa.
- Jardueraren etekina ZO orokorraren osagai bat da.

Etekin kalkulatzeko moduak:

13/2013 Foru Arauko 25. art. Etekin garbia kalkulatzeko arau orokorrak

1. **Zuzeneko zenbatespenaren (ZZ)** metodoa erabiliz egingo da etekin garbiaren kalkulua, eta modalitate hauek izango ditu:

a) Arrunta (ZZA).

b) Erraztua (ZZE). Modalitate hau ekonomia-jarduera jakin batzuei aplikatuko zaie, hain zuzenere, zergadunak egindako jarduera guztiak hartuta, denek batera kasuan kasuko ekitaldiaren aurre-aurreko urtean 600.000 eurotik gorako eragiketa bolumena gainditzen ez dutenei.

Jarduera ekitaldiaren barruan egiten hasi bada, aurreko lerroaldean aipatzen den kopurua konputatzeko ekitaldi horretan egindako eragiketa bolumena hartuko da kontuan. Jarduera hasi den ekitaldia urtebete baino laburragoa izan bada, aurreko kopurua konputatzeko, egindako eragiketak urtearekin parekatuko dira. **Modalitate hau aplikatu ahal izateko, zergadunak beren-beregi adierazi beharko du hala nahi duela, erregelamendu bidez ezartzen diren baldintzetan.**

Modalitate bien arteko desberdintasun fiskal nagusia da, ZZEn kasuan, amortizazioak eta hornidurak ezin direla kendu.

ZZEn, kengarriak diren diru-sarrera eta gastuen arteko diferentzia %10 murriztuko da, amortizazio, hornidura eta justifikatzeko zailak diren gastuengatik.

ZZE eta ZZAren arau komunak:

- Eraginpeko ondasunak irabazi edo galtzea Foru Arauak ezarritakoaren arabera kalkulatu dira (eguneratze koefizienteak aplikatzea).

Eraginpeko ondasuna. Kontzeptua:

Egoki diren etekinak lortzeko beharrezkoa den ondareko edozein elementu.

Murrizketa handiak daude ondasuna ez badago jardueraren eraginpean soilik.

- Etekin garbia %10 murriztu ahal izango da lehen zergaldi positiboan eta hurrengoan (jarduera hasi eta lehen bost zergaldietan).

Jarduera berria izatea eskatzen da, eta halaber, diru-sarrera guztien erdia baino gehiago ez etortzea, aurreko urtean, zergapekodunari etekinik ematen zion pertsona edo erakunderen batetik.

- Zergapekodunarekin bizi diren ezkontideak, izatezko bikoteak edo seme-alaba adingabeek eginiko ondasun lagapenak balioetsiko dira.

Ezarritako kontraprestazioa, merkatuko balioa gainditzen ez badu, gastu gisa kendu ahal izango da eta ezkontidearen, izatezko bikotearen edo adingabeko seme-alaben kapitalari dagokion etekintzat joko da.

Arau hori ez da aplikatuko ezkontide edo izatezko bikotekide bien ondasun edo eskubideak direnean.

- Gastu hauen kengarritasunareko murrizketak ezartzen dira:
 - jardueran lan egiten duten ezkontide eta seme-alaba adingabeen ordainsariak.
 - harreman publikoetako gastuak (sukaldaritza, ostalaritza, bidaiak)
 - opariak
 - turismo-ibilgailuekin lotutako gastuak
 - 2.500 eurotik gora eginiko eskurako ordainketak
- Foru Arauak ezarritako zenbait pizgarri jasotzeko aukera, adibidez:

- Ondareko elementuak eskualdatzeagatiko etekinak berriz inbertitzea.
- Amortizazio, amortizazio bizkortu eta amortizazio elkaturako askatasuna.
- Korrronteak ez diren aktibo berrietan inbertitzeagatiko kenketa.
- Enplegua sortzeagatiko kenketa

BEZ

Azaroaren 9ko 1994/7 Foru Araua, balio erantsiaren gaineko zergari buruzkoa

Kontzeptu orokorra:

Kontsumoaren gaineko zerga da BEZ, eta ondasun edo zerbitzuaren azken kontsumitzaileak ordaintzen du.

Enpresaria bitartekaria da bera eta Ogasunaren artean.

Likidazioaldi bakoitzaren bukaeran, jasanarazitako BEZaren eta jasandako BEZaren arteko diferentzia ordainduko dio Ogasunari, positiboa bada.

Negatiboa bada, konpentsatzeko edo itzultzeko eskatuko du.

Eragiketa motak:

a) Eragiketa zergapetuak:

Zergaren ezarpen-eremuaren barruan, enpresari edo kostubidezko profesionalak, ohikotasunez edo aldian behin, beren enpresa jarduera edo jarduera profesionalaren barruan, egindako ondasun eta zerbitzu emateen entregak daude Zergari lotuak, entitatearen bazkide, kide edo partaideen alde eginda badaude ere bai.

b) Eragiketa zergapetu gabeak:

Zerga-egitatea sortzen ez dutenak*, eta ez daude zergak kargatuta.

* Zerga-egitatea (ZE) = ondasun edo zerbitzu bat ematea

Eragiketa zergapetuak, halaber, honela sailka daitezke:

- Salbuetsi gabeak: BEZen gertatzen da eta eragiten du ZE-k.
- Salbuetsiak: ZE gertatzen da, baina arrazoi desberdinengatik, ez daude zergak kargatuta. Salbuetsitako eragiketetan ez da BEZa jasanarazten.

Bi salbuespen talde handi dago:

SALBUESPEN OSOAK: horiek burutzeko beharrezkoak diren ondasun eta zerbitzuetako BEZa kentzeko aukera ematen dute.

SALBUESPEN MUGATUAK: ez dute BEZa kentzeko aukerarik ematen.

Zerga-tasak:

- Tasa orokorra: %21
- Tasa murriztuak: %10 eta %4

Orokorrean, gizarte zerbitzu edo oinarrizko produktuetan aplikatzen da: beharra zenbat eta handiagoa izan, orduan eta txikiagoa da aplikatzen den BEZa.



Erregimen motak:

Erregimen orokorra:

Bereziak aplikatzea egoki ez denean, uko egiten denean edo baztertuta geratzen denean aplikatzen da.

Erregimen bereziak:

Aipagarrienak:

- 1 –Erregimen sinplifikatua
- 2 –Baliokidetasun-errekarguaren erregimen berezia
- 3 –Kutxa irizpidearen erregimen berezia

1.- Erregimen sinplifikatua: nahitaezkoa da, uko egin ahal zaio.

Modu oso sinplean, urteko kuota honela kalkulatzen da:

Sortutako kuota batetik abiatzen da, Ogasunak egindako indize eta modulu batzuen arabera ezartzen dena.

Enpresariak diru-sarrera bat egingo du hiru hilerik behin, sortutako kuotaren ehuneko bat.

Ekitaldia bukatu ondoren, sortutako kuotatik kendu egingo dira jasandako kuotak (muga batzuekin). Kendura urteko kuota izango da, eta hortik, egindako diru-sarrerak deskontatuko dira.

2.- Baliokidetasun-errekarguaren erregimen berezia: nahitaezkoa da, ezin zaio uko egin.

Pertsona fisikoak edo errentak eratzikitzeko araubidepeko entitateak diren txikizkako merkatariari aplikatzen zaie.

Zeintzuk dira txikizkako merkatariak?

1. Ondasun higigarriak edo azienak entregatzen dituzte askotan, zuzenean edo hirugarrenen bidez, fabrikazio, lanketa edo eskulangintza prozesuan parte hartu barik.

2. Ondasun horiek Gizarte Segurantzara, entitate kudeatzaile edo laguntzaileetara edo enpresari edo profesionalak ez direnengana eramateagatiko aurreko urteko kontraprestazioen batuketak entrega guztien %80tik gorakoa bada.

Produktu batzuk ez dira Erregimen Berezikoak izango, eta eragiketa eta prozesu batzuk ez dira eraldaketatzat jotzen.

- Erregimen berezi honen mende daude subjektu pasiboek ez dute hiruhileko BEZaren likidazioa egin beharko (salbuespenak daude). Hornitzaileek gaitz bat egingo diete erosketetan, ordea.

- Hiru baliokidetasun-errekargu mota daude:
%5,2koa, %21eko tasa orokorra duten produktuen kasuan.
%1,4koa, %10eko tasa murriztua duten produktuen kasuan.
%0,5ekoa, %4ko tasa murriztua duten produktuen kasuan.

3.- Kutxa irizpidearen erregimen berezia (KIEB): aukerakoa da.

- Aukeratu daiteke baldin eta:

Aurreko urteko eragiketen bolumena 2.000.000 eurotik beherakoa bada.

Jarduerak ez bazuen aurreko urte natural osoa iraun, eragiketen bolumena urtearen buruan aurkeztu beharko da.

Erregimen berezi hau jarduera hasten den ekitaldian aplikatu ahal izango da.

- Baztertzen da baldin eta:

Urte naturalaren barruan, hartzaile berberari 100.000€ baino gehiago kobratzen bazaio esku dirutan.

Prezioa osoa edo zati bat kobratzen den unean bertan sortuko da zerga, ordaindutako zenbatekoaren arabera, edo ordainketa egin ez bada, eragiketa egin eta hurrengo urteko abenduaren 31n sortuko da.

Kanpo geratzen dira, beste batzuen artean:

- Erregimen berezietako subjektu pasiboak: sinplifikatua, nekazaritzakoa, abeltzaintzakoa eta arrantzakoa, EBkoa, eta entitateen taldekoa.
- Esportazioak eta E.B.Esp.
- E.B.Erosk.
- SP inbertitzeko eragiketak.
- Inportazioak

Zergaren eragina:

- Egoki den faktura egin eta ematen den unean bertan burutuko da, baina egintzat joko da eragiketa sortzen den unean (kobratzen den unea).

Zergaren kenketa:

- Kenketarako eskubidea ordaintzen den unean (guztia edo zati bat) sortzen da.
- Ordainketarik egin ez bada, hurrengo urteko abenduaren 31n.
- Zerga egitatea egintzat jotzen den unea edozein delarik ere.

Erregimenaren mende dauden SPen erregistro-obligazio bereziak:

- Egin eta jasotako fakturen erregistro liburua:
 - Kobrantza edo ordainketaren datak eta zenbatekoa (osoa edo partziala).
 - bankuko kontua edo kobratzeko/ordaintzeko erabiltzen den modua.

Erregimenaren mende ezdauden SPen erregistro-obligazio bereziak:

- Jasotako fakturen erregistro liburuari dagokionez, obligazio berberak.

Obligazio formalak: fakturazio baldintzak

Faktura egiteko obligazioa dago kasu hauetan:

- Jasotzailea enpresaria edo profesionala denean.
- Jasotzaileak eskabidea egin badu zerga-eskubideren bat erabiltzeko.
- EB barruko ondasunak eta esportazioak entregatzea salbuetsita dago, zergarik gabeko dendak izan ezik.
- Urrutiko salmentak eta EBko beste Estatu batzuetatik (zerga aplikatzeko eremu barrukoak) datozen eta zerga berezien mende dauden ondasunak entregatzea (BEZari buruzko Legearen 68. artikulua, hiru eta bost).
- Instalatu edo muntatu behar diren ondasunak entregatzea (BEZari buruzko Legearen 68. artikulua, bi).
- Enpresariak ez diren pertsona juridikoak edo profesionalak badira jasotzaileak.
- Jasotzaileak Herri Administrazioak badira.

Fakturaren gutxienerako edukia:

a) Zenbakia, eta egoki bada, serie-zenbakia. Serie barruan, fakturen zenbakitzea korrelatiboa izango da.

b) Sortze data.

c) Faktura egin behar duenaren eta eragiketen jasotzailearen izen-abizenak, eta arrazoi edo izen sozial osoa.

d) Europako Batasuneko edozein Estatuko zerga Administrazio eskudunak emandako **Identifikazio Fiskaleko Zenbakia**, faktura egin behar duenak eragiketa burutzeko erabili duena.

e) Helbidea, faktura egin behar duenarena eta eragiketen jasotzailearena.

f) Eragiketen deskribapena, Zergaren zerga-oinarria ezartzeko beharrezkoak diren datu guztiekin, BEZari buruzko Foru Arauak, 78 eta 79 artikuluetan, aipatzen duen bezala. Eragiketen banakako kostua (zergarik gabe) aipatu behar da, eta banakako prezio horren barne dagoen edozein deskontu.

g) Zerga egitatea edo zerga egitateak, eragiketei aplikatuak.

h) Eragiten duen zerga kuota, bereiz idatzi behar dena.

i) Dokumentatzen diren eragiketen data, edo hala badagokio, aurretiazko ordainketa jaso denekoa, faktura egin den dataren ezberdina bada.

Faktura egiteko beharra **faktura sinplifikatua** eta kopia eginez bete daiteke honako kasu hauetan:

- Zenbatekoa **400 eurotik beherakoa** bada, BEZ barne.
- **Zuzentzeko faktura** egin behar denean.
- Zenbatekoa **3000 eurotik beherakoa** bada, BEZ barne, honako eragiketa hauen kasuan:
 - Txikizkako salmentak.
 - Anbulantzia salmenta edo zerbitzuak.
 - Kontsumitzailearen etxean eginiko salmenta edo zerbitzuak.
 - Pertsona eta beren bagajeen garraioa.

- Ostalaritza establezimenduek emandako ostalaritza eta sukaldaritza zerbitzuak.
- Diskoteka eta dantza aretoek emandako zerbitzuak.
- Erabilera publikoko telefono kabinen bidez edo izenik gabeko txartelen bidez emandako telefono zerbitzuak.
- Ile-apainketa zerbitzuak eta edertasun institutuek emandakoak.
- Kirol instalazioen erabilera.
- Argazkiak errebelatzea eta argazki estudioen zerbitzuak.
- Ibilgailuak aparkatzea.
- Filmak alokatzea.
- Arropak tindatu eta garbitzeko zerbitzuak.
- Ordaindu beharreko errepideak erabiltzea.

Ogasuneko Zuzendaritza Nagusiak baimena eman dezake faktura sinplifikatuak egiteko beste kasu batzuetan ere bai.

Faktura sinplifikatuek datu hauek jaso behar dituzte:

- Zenbakia, eta egoki bada, serie-zenbakia. Serie barruan, fakturen zenbakitzea korrelatiboa izango da.
- Sortze data.
- Eragiketaren data, edo hala badagokio, aurretiazko ordainketa jaso denekoa, faktura egin den dataren ezberdina bada.
- Faktura egiten duenaren IFZ, izen-abizenak, eta arrazoi edo izen sozial osoa.
- Emandako ondasun edo zerbitzuen identifikazioa.
- Zerga tasa, eta nahi izanez gero, "BEZ barne" esaldia.
- Kontraprestazio osoa.
- Zuzentzeko fakturretan, zuzentzen den fakturaren aipamena.
- Hala badagokio, zirkunstantzia hauei dagokien aipamena (gertatzen badira):
 - Salbuetsitako eragiketetan, araudia aipatzea edo salbuetsita dagoela jartzea.
 - "Jasotzaileak fakturatua" esatea.
 - "Subjektu pasiboaren inbertsioa" esatea.
 - "Bidaia Agentzien erregimen berezia" esatea.

- "Erabilitako ondasunen erregimen berezia", "arte ondasunen erregimen berezia" edo "Antzinako gauzen eta bildumako objektuen erregimen berezia" esatea.
- "Kutxa irizpideko erregimen berezia" esatea (2015-04-01etik aurrera).

Kontzeptuak:

- Erkidego barruko eragiketak.
- Hainbanaketa Erregela eta Sektore Bereziak.
- Subjektu Pasiboaren inbertsioa

Beste gai interesgarri batzuk:

PFEZ:

Gastuen kengarritasunaren mugak

- a) Harreman publikoak (sukaldaritza, ostalaritza, bidaia eta lekualdatze zerbitzuak):

Egindako gastuen erdia (muga batekin).

- b) Opariak:

- 300 €, gehienez, jasotzaile bakoitzeko.
- Jasotzailearen nortasuna agiri bidez jasota uztea eskatzen da.

- c) Turismo ibilgailuak erabiltzea:

Orokorrean, ez dira kengarriak izango ibilgailu hauek erabiltzeagatik gastuak.

Zergapekodunak ziurtatzen badu, jardueraren izaeragatik, erabiltzen duen ibilgailua nabarmenki garrantzitsua eta ohikoa dela diru-sarrerak eskuratzeko, gastuen %50 kendu ahal izango da, eta bi gehienezko muga egongo dira:

- 2.500€ amortizazioagatik
- 3.000€ gainerako guztiagatik

Muga horiek 5.000 eta 6.000 eurokoak izango dira, hurrenez hurren, zalantzarik gabe frogatzen bada lotura eskusiboa.

BEZ:

Kenketa eskubidearen mugak

Oro har, zuzenean eta esklusiboki, enpresa jarduerari edo jarduera profesionalari lotzen ez zaizkion ondasun eta zerbitzuei dagozkien kuotak ezin izango dira kendu.

Salbuespenak

- ibilgailuak ez diren inbertsio ondasunak:

ziur aski erabiliko diren neurrian

- Tursimo ibilgailuak:

%50ean lotuta daudela suposatzen da (salbuespenak kenduta).

Ehuneko hori konponketa, erregai, aparkatze eta bide-sarien gastuei ere aplikatzen zaie.

Garrantzitsua:

Ez dira inbertsio ondasuntzat jotzen inbertsio ondasunak konpontzeko erositako osagarriak eta ordezeko piezak, ezta 3.005,06 euro baino gutxiago balio duen beste edozein ondasun ere.

Kentzeko eskubidearen salbuespenak

- Elikagaiak, edariak eta tabakoa
- Aisialdiko ikuskizun eta zerbitzuak.
- Bezero, langile eta hirugarrenei arreta emateko zerbitzu eta ondasunak.

Iruzurra ekidin eta haren aurka borrokatzea:

Esku dirutan eginiko ordainketen mugak

Parte hartzen duenatariko baten bat enpresaria edo profesional modura parte hartzen badu, eta zenbatekoa 2500 eurotik (edo baliokidea atzerriko monetan) gorakoa bada ezin izango da eragiketa esku dirutan ordaindu.

Arau-hausleak izango dira ordaintzen duten pertsona edo entitateak, baita kobratzen dutenak ere. Salatu egiten duen parteari bere erantzukizunetik libre geratuko da.